elhuyar
ezagutuz aldatzea

LESAKAKO UDALA

Lesaka biziberritzen
Alondegia berrasmatzeko partaidetza prozesua

Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

MEMORIA 2022

ALONDEGIA BERRASMATZEKO PARTAIDETZA-PROZESUA

AURKIBIDEA

1. Abiapuntua
2. Egitasmoaren helburuak
3. Talde Eragilea
4. Prozesua
5. Metodologia
6. Komunikazioa
7. Emaitza: Alondegiaren etorkizuneko erabilerak
8. Eranskinak/Bestelako emaitzak

Abiapuntua

Alondegiak aukera handiak eskaintzen ditu udalerriko azpiegitura-beharrei eta Lesakak herri gisa dituen erronkei erantzuteko, bai bere tamainagatik, bai bere kokapenagatik. Potentzial handia daukan espazio bat da, eta, batetik, urteak joan ahala, erabilera batzuk eman zaizkio behin-behinean, eta, bestetik, espazioaren zati handi bat hutsik dago une honetan. **Eraikinak eskaintzen dituen aukerak aintzat hartuta, udalerriko eragile eta herritarrekin ariketa kolektibo bat egin nahi izan du Udalak**, udalerriko beharren eta aukeren inguruan hausnartzeko eta denon artean Alondegiaren etorkizuneko erabilerak adosteko.

Alondegiaren **beheko solairuko jarduera** (Jubilatuen elkartearen egoitza eta taberna**) oso egonkortuta** dago eta, beraz, ez da zalantzan jarri. Alondegia berrasmatzeko prozesuan **lehenengo, bigarren eta hirugarren (ganbara) solairuen inguruko erabilerak landu ditugu**.

02

Helburuak

Egitasmoaren helburuak

- **Alondegiaren etorkizuneko erabilera(k) herritarrekin batera erabaki eta lantzea.**
- **Erronka eta behar kolektiboei erantzun kolektiboak ematea.**

Horretarako urrats hauek irudikatu eta egin ditugu:

1. Lesakako arazo eta beharren inguruko azterketa eta gogoeta kolektiboa egin:
    - Lesakan zer behar ditugu eta zer nahi dugu?
2. Alondegiak zer beharrei erantzun behar dien lehenetsi:
    - Alondegiak zer aukera eskaintzen dizkigu?
    - Zertarako erabili nahi dugu Alondegia?
3. Denon artean zehaztutako lehentasunei erantzuteko egitasmoak irudikatzen hasi.

Zeharkako helburuak:

- **Udalerriko arazoak eta beharrak** identifikatzea eta horien inguruko **gogoeta kolektiboa** egitea.
- Eragile eta herritarrek norberaren beharrak azaleratu, **gainerakoen beharrak ezagutu eta, horiekiko ardura kolektiboa hartzea**.
- **Komunitatea sendotzea:** Eragile eta herritarrek elkarrekin lan egin eta harremanak sendotzea.
- **Udalaren eta herritarren arteko zubiak** eraikitzen jarraitzea, gauzak elkarrekin landu eta erabakitzeko kulturan sakonduz.

03

Talde Eragilea

TALDE ERAGILEA

- **OSAERA**: Lesakako Udaleko 3 kidek osatu dute (Ladis Satrustegi, Mattane Rodriguez eta Ioar Oteizak) eta Elhuyarreko teknikari batek (Lur Etxeberriak). Tarteka Elhuyarreko bigarren teknikari batek ere parte hartu du (Elixabet Urzelaik).

- **FUNTZIONAMENDUA**: Prozesuak iraun duen bitartean 9 bilera egin ditu, bi ordu ingurukoak.

- **ZEREGINA**: Egitasmoa koordinatu, gidatu eta bideratzeaz arduratu da.

9 bilera

04

Prozesua

ALONDEGIA BERRASMATZEKO PARTAIDETZA-PROZESUA

Prozesuaren faseak



Egitasmoa abiatu

URTARRILA

Entzute-fasea

OTSAILA-MARTXOA



Gogoeta kolektiboa eta erabakia

APIRILA-MAIATZA

Prozesua baloratu eta sozializatu

EKAINA-IRAILA

1. FASEA: EGITASMOA ABIATU

Prozesuaren oinarriak landu eta antolatu ditugu.

Talde Eragilea osatu dugu prozesua gidatu, koordinatu eta antolatzeko eta, prozesuaren hasieran, alderdi hauek landu ditugu:

- Prozesuaren nondik norako nagusiak landu eta adostu: espektatibak, aintzat hartzeko alderdiak, esperotako emaitzak eta kronograma.
- Komunikazio Plana diseinatu (ikus eranskina).
- Udalerriko eragileen eta kolektiboen mapa landu eta udalerriko beharren inguruko lehenengo hurbilpena (ikus eranskina).
- Prozesuaren joko-arauak edo printzipioak landu.

Udaldabatza osoari prozesua aurkeztu eta gidaritzan parte hartzeko eskaintza luzatu diogu, baina oposizioko taldeak ez parte hartzea erabaki du.

Alondegiaren gaur egungo erabiltzaileei prozesuaren berri eman eta parte hartzeko kanalak aurkeztu dizkiegu.



Fase honetako emaitzak:

- Komunikazio Plana
- Lesakako eragile eta kolektiboen mapa eta udalerriko beharren lehenengo hurbilpena
- Prozesuaren printzipioak

1. FASEA: EGITASMOA ABIATU

Prozesuaren joko-arauak edo printzipioak

UDALAREN KONPROMISOA

Udal Gobernuak konpromisoa hartzen du Alondegiaren erabilera(k) herritarrokin landu eta herritarrok zehaztutako lehentasunak gauzatzeko bere esku dagoena egiteko.

GUTASUNA ETA ARDURA KOLEKTIBOA

Norberaren beharrez gain, besteenak ere ezagutzea, aintzat hartzea eta elkarrengandik ikastea. Herri-ikuspegiz lan egitea, denon honerako.

PUBLIKOTASUNA

Hartzen den erabakia hartzen dela, espazioaren jabetza publikoa mantenduko da uneoro.

ERABILERA ANITZAK

Gutxi batzuen beharrak aseko dituen erabilera bakar bat baino, erabilera anitzetarako aukerak eskainiko dituen emaitza bat lehenesten dugu.

GAUR EGUNGO ERABILTZAILEENTZAKO LEKU BAT

Alondegirako lehenesten diren erabilerak edozein izanda ere, gaur egungo erabiltzaileei leku bat bermatuko zaie udalerrian, Alondegian nahiz beste eraikin batean.

ERABAKITZE-FASEA

Prozesu honetan Alondegiaren erabilerak zehaztuko ditugu, baina ezingo dira ondorengo egunerako gauzatu. Prozesua amaitzean, obra-proiektu bat landu eta finantzaketa lortu beharko da.

2. FASEA: ENTZUTE-FASEA

Lesakako eragile eta herritarren arazo eta beharrak nahiz herri gisa dituzten erronkak ezagutzea.

Aurreko fasean landutako eragileen eta beharren mapan oinarrituta, **8 talde-elkarrizketa** egin ditugu:

Emaitza:
Lesakako beharren eta aukeren diagnostikoa



2. FASEA: ENTZUTE-FASEA

Datu esanguratsu batzuk:

68	lagunek parte hartu dute
% 57	emakumeak eta % 43 gizonak
16	Haur* eta 52 heldu
30	eragile inguru

**Haurrek Haurren parte hartzeko organoaren bidez parte hartu dute, Miren Etxepetelekuk gidatuta.*

- Eraldaketa soziala: Arrano elkarteko kideak, Xulufrinak sare feministako kideak, mugimendu ekologistako kideak, gazte-mugimenduko kideak, Bertso Eskolako neska taldeko kideak, Oninart udalerriko komunikazio-enpresa.
- Euskalgintza: Xorroxin irratia, Ika euskaltegia, Euskara Mankomunitatea, Euskara Batzordeko kideak, Euskaraldiko kideak, Tantirumairu ikastolak.
- Kulturgintza: Giltzarri Abesbatza, Lesakako Musika Banda, Beti Gazte KTKE, Lesaka trikitixa taldea, San Fermin Jubilatuen elkartea.
- Tokiko garapena: 1. Sektorea: Bidazi kontsumo-kooperatiba, bi abeltzain/nekazari (bat abeltzaintzatik bizi dena eta bestea nekazari/abeltzaina ez), Merkatu Ttikiko artisau bat eta Cederna Garalurreko teknikaria.
- Tokiko garapena: 3. Sektorea: Merkatarien Zerbitzu Elkarteko kideak, Ostalariak, Matxinbeltzeneako lagun bat eta turismo-teknikaria.
- Adinekoak: Elkarrizaneko kideak, Baztan-Bidasoako pentsionisten mugimendua, San Fermin Jubilatuen elkartea, Mankomunitateko Gizarte Zerbitzuak.
- Guraso eta irakasleak (haur eta nerabeen beharrak): Irango eta Tantirumairuko irakasleak eta guraso-elkarteak.

Talde Eragilearen balorazioa:

- Identifikatutako **eragile gehienen ahotsa** entzutea lortu dugu.
- Partaideek **oso balorazio positiboa** egin dute (ikus hurrengo orria).
- Talde-elkarrizketak baliagarriak izan dira **kolektibo gisa dituzten arazo eta beharrak ezagutzeko eta artikulatzen hasteko**. Sektore batzuk elkarrekin jardutera ohituago dauden arren, elkarrekin pentsatzera ohituta ez dauden hainbat kolektibo elkartu ditugu: adinekoak, eraldaketa soziala, 1 eta 3 sektorea…
- Oso interesgarria izan da dimentsio honetako entzute-ariketa bat egitea. **Herri-mailako gogoeta** bat eragin du eta **herriko beharren argazki bat** eman digu.

- Gogoeta kolektiboko fasean Dantza-taldeko eta Txistulari-taldeko kideek ere parte hartu dute (30+2).

Partaideen balorazioa

	Batez bestekoa 1etik 5era
Saioan zehar nire iritzia emateko eta ekarpenak egiteko aukera izan dut.	4,9
Saioan parte hartu duten gainerako pertsonei entzun eta beren ikuspegia ezagutzeko aukera izan dut.	4,9
Lanerako eta iritziak partekatzeko giroa egokia izan da.	4,9
Saioaren ondoren, zenbatekoa da prozesuan jarraitzeko nire motibazioa edo gogoa?	4,6

- *“Atera diren gaiak hagitz interesgarriak izan dira eta giro hurbila sortu da”.*
- *“Hagitz interesgarria bertze herritarren ikuspegia ezagutzea eta bereziki adin-tarte ezberdinetako jendearena”.*
- *“Pozgarria da udalak aukera ematea eta hainbeste arlotako jendeari eraikin hori erabiltzeko galdetzea”.*
- *“Saioan egon den giro goxoa eta gaia bideratzeko teknikarien gaitasuna. Mila esker!” Giro polita eta hurbila. Hagitz ongi egon da”.*
- *“Gustura sentitu naiz”.*

2. FASEA: ENTZUTE-FASEA

Beste udalerrietako esperientzia interesgarriak ezagutzea ere izan da fase honen helburua.

Emaitza:

Alondegiaren kanpoaldeko erakusketa

Beste udalerrietako **esperientzia interesgarriak** identifikatu eta bildu.

Entzute-faseko partaideek nahiz Talde Eragileak identifikatutako esperientzia interesgarrien inguruko informazioa bildu dugu eta **erakusketa bat** jarri dugu Alondegiaren kanpoaldean prozesuak iraun duen bitartean. Erakusketaren **helburua bikoitza** izan da:

- Prozesuaren berri ematea eta gogoeta kolektiboaren fasera herritarrak **erakartzea**.
- Beste udalerri batzuetako **esperientzia interesgarri eta inspiratzaileak ezagutzea**.

3. FASEA: GOGOETA KOLEKTIBOA ETA ERABAKIA

Partaidetza-prozesua zabaltzeko unea

- **Lesakako arazoak eta beharrak ezagutu eta gogoeta kolektiboa egin dugu.**
- **Alondegiaren etorkizuneko erabilerek zer beharrei erantzun behar dien landu dugu.**

Herritarrekin 1. saio irekia

Apirilak 2, larunbata

- Lesakako arazo eta beharren inguruko gogoeta kolektiboa
- Alondegiaren etorkizuneko erabilerak zer beharrei erantzun beharko liekeen lehenetsi.

Talde Eragilea

Apirila-maiatza

- Herritarrek zehaztutako lehentasunei erantzuteko egitasmo-proposamenak landu.

Herritarrekin 2. saio irekia

Maiatzak 21, larunbata

- Talde Eragileak landutako egitasmo-proposamenak ezagutu, aberastu eta adostu.
- Prozesua eta emaitza baloratu.



Emaitza:

- Lesakako arazo eta behar nagusien murala
- Alondegiaren etorkizuneko erabileren inguruko egitasmoa

3. FASEA: GOGOETA KOLEKTIBOA ETA ERABAKIA

Herritarren 1. saio irekia

28	lagun
% 56	emakumeak eta % 44 gizonak
3	orduko lan-saioa

Zer landu dugu?

- Entzute-fasean identifikatutako **udalerriko arazo eta beharrak** ezagutu, aberastu eta horien inguruko **gogoeta kolektiboa** egin dugu.
- Udalerriko **behar eta arazo nagusiak identifikatu** ditugu, hainbat irizpideren arabera: Udalerriaren etorkizunerako estrategikoak direnak, jende-kopuru handiari eragiten dietenak edo askotan aipatu direnak, eta, zaurgarritasun-egoeran dauden kolektiboei eragiten dietenak. Ikus murala.
- **Alondegiaren etorkizuneko erabilerek zer beharrei erantzun** behar dieten zehaztu dugu.

Lehentasuna	Alondegiaren etorkizuneko erabilerak zer arazo eta beharrei erantzuteko baliatu nahi ditugu?	Irizpidea
Altua (15 puntu)	➢ **Herrigintza garatzeko espazio partekatu baten beharra:** Udalerriko eragile, elkarte, sektore eta mugimenduen etxea, bakoitzari behar duenerako aterpea emango diona eta elkarrizketan jarriko dituena. Era berean, gaur egungo erronken inguruan hausnartzeko leku bat.	**Gehien errepikatzen** diren/jende askori eragiten dieten eta **herriaren etorkizunerako estrategikoak**/garrantzitsuak direnak
Altua (15 puntu)	➢ **Herrian enplegu berriak eta trebakuntza,** tokiko garapenari eta ekonomia sozial eraldatzaileari lotuta	**Herriaren etorkizunerako estrategikoak**/garrantzitsuak direnak



Herritarren 1. saio irekiko partaideen balorazioa

Hitz batekin baloratu dute saioa eta hauek nabarmendu dituzte: *“Aberasgarria”, “interesgarria”, “aniztasuna”, “elkarlana”, “herri-norabidea”, “arintasuna”, “ezagutza”, “herritartasuna”, “harremanak”, “elkartruke”, “eraikitzea”.*

	Batez bestekoa 1etik 5era
Saioan zehar nire iritzia emateko eta ekarpenak egiteko aukera izan dut.	4,7
Saioan parte hartu duten gainerako pertsonei entzun eta beren ikuspegia ezagutzeko aukera izan dut.	4,7
Lanerako eta iritziak partekatzeko giroa egokia izan da.	4,8
Saioaren ondoren, zenbatekoa da prozesuan jarraitzeko nire motibazioa edo gogoa?	4,5

3. FASEA: GOGOETA KOLEKTIBOA ETA ERABAKIA

Talde Eragilean herritarrek zehaztutako lehentasunak gorpuzteko proposamenak landu ditugu.

Proposamenak zehazteko urratsak:

- Herritarrokin apirilaren 2an zehaztutako **lehentasunak nola gorpuztu pentsatzen** hasi.
- Tokiko garapena eta bertako enplegua sortzeko beharrari nola erantzun irudikatzeko **Errenteriako Torrekuara bisita** (ekintzailetza kolaboratiboa eta sormen-ekonomia bultzatzeko egitasmoa).
- **Cederna Garalurrekin** bilera.
- **Beti Gazterekin** bilera.
- **Xorroxinekin** harremana.

3. FASEA: GOGOETA KOLEKTIBOA ETA ERABAKIA

Herritarren 2. saio irekia

20	lagun
% 70	emakumeak eta % 30 gizonak
3	orduko lan-saioa

Zer landu dugu?

- Alondegiaren etorkizuneko erabileren lehentasunei erantzuteko proposamenak aurkeztu.
- Denon artean proposamenak aztertu, baloratu eta ekarpenak egin.
- Hurrengo urratsak zehaztu eta, prozesua eta emaitza baloratu.

3. FASEA: GOGOETA KOLEKTIBOA ETA ERABAKIA

Herritarren 2. saio irekiko partaideen balorazioa

	Batez bestekoa 1etik 5era
Saioan zehar nire iritzia emateko eta ekarpenak egiteko aukera izan dut.	4,9
Saioan parte hartu duten gainerako pertsonei entzun eta beren ikuspegia ezagutzeko aukera izan dut.	4,7
Lanerako eta iritziak partekatzeko giroa egokia izan da.	4,8
Gustura geratu naiz emaitzarekin: Alondegiaren etorkizunerako zehaztutako erabilerekin	4,7
Gustura nago prozesuarekin	4,8

- *"Jende anitzak parte hartu du, ezberdinak".*
- *"Inplikazioa"*
- *"Partaidetza handia"*
- *"Kristoren ideia polita da prozesu hau herriarekin partekatzea. Aberatsa eta sormena bermatzen duena. Oso oso pozik".*
- *"Lesaka indartzeko aitzinera pausoak eman dire".*
- *"Beti eskertzekoa da administrazioak herri ondasunen erabileraz, etorkizunaz… eragileei eta herritarrei iritzia eskatzea".*
- *"Herritar bezala parte hartzeko aukera izatea".*
- *"Proposamena ona eta, nahiko konkretuak ideiak".*
- *"Atera diren ideia/proposamenak hagitz interesgarriak".*
- *"Herri mailan udaletik lan handia egiten ari da. Bakoitzak bere beharrak ditu eta erronka handia suposatu du".*

Zer landu dugu?

Prozesua eta emaitza sozializatzeko tresna hauek landu ditugu:

- **Bideo labur bat**: prozesuan zehar inplikatutako lagunen partaidetza ezagutarazi, aitortu eta eskertzeko, partaideen argazki eta irudietan oinarritua.
- **Esku-orri bat**: prozesuaren emaitza azaltzeko helburu nagusiarekin, hau da, Alondegiaren etorkizuneko erabilerak zeintzuk izango diren. Irailean inprimatu eta etxez etxe banatu da.

Emaitza:

- Prozesuaren bideoa
- Emaitza azaltzen duen esku-orria
- Memoria

Prozesua datutan

82	lagun ezberdinek parte hartu dute.
68	lagun entzute-fasean
30	Gogoeta kolektiboko fasean
% 56	emakumeak eta % 44 gizonak
5/6	Hilabete inguruko prozesua
32	eragilek parte hartu dute
3	Udalaz gaindiko erakundeak: Cederna Garalur, Mankomunitateko Zerbitzu Sozialak eta Euskara Mankomunitateak.

Helburuen betetze-maila

Zein neurritan lortu ditugu helburuak?		
Helburu nagusiak	**Alondegiaren etorkizuneko erabilera(k) herritarrekin batera erabaki eta lantzea.**	✓
	Erronka eta behar kolektiboei erantzun kolektiboak ematea.	✓
Zeharkako helburuak	Udalerriko arazoak eta beharrak identifikatzea eta horien inguruko gogoeta kolektiboa egitea.	✓
	Eragile eta herritarrek norberaren beharrak azaleratu, gainerakoen beharrak ezagutu eta, horiekiko ardura kolektiboa hartzea.	✓
	Komunitatea sendotzea: Eragile eta herritarrek elkarrekin lan egin eta harremanak sendotzea.	✓
	Udalaren eta herritarren arteko zubiak eraikitzen jarraitzea, gauzak elkarrekin landu eta erabakitzeko kulturan sakonduz.	✓

Prozesuaren adierazle kualitatiboak

(helburuen betetze-mailaz gain)

• Lortu da abiatze-fasean zehaztutako sektore eta kolektiboek parte-hartzea? (kulturgintza, euskalgintza, eraldaketa soziala, tokiko garapena, haur eta nerabeak, gazteak eta adinekoak)		Neurri handi batean bai, nahiz eta kolektiboren bat falta izan zaigun (adib. nerabeak). Entzute-fasean parte hartu duten arren, komertzioek ezin izan dute gogoeta-fasean parte hartu ordutegiengatik.
• Partaideen asebetetzea, prozesuarekiko eta emaitzarekiko (sexuaren, adinaren eta sektorearen arabera bereizita):		Saio bakoitza oso ondo baloratu dute eta prozesua ere bai, oro har.
Zer neurritan lortu da komunitatea sendotzea?	• Elkar ezagutzan sakondu da?	Kolektibo bakoitzarekin egindako saioetan (entzute-fasean), elkar ezagutzan sakontzeko aukera dezente izan dugu. Gogoeta kolektiboko fasean, berriz, ikuspegi orokorra landu dugu gehien bat, eta ez dugu hainbeste sakondu talde edo kolektibo bakoitzaren ezagutzan. Halere, partaideek baloratu dute gogoeta-faseak ere aukera eman diela gainerakoen ikuspegi eta beharrak ezagutzeko.
	• Konfiantza eta enpatia-giroa sortu da?	Asko
	• Eragile eta herritarren arteko harreman-sareak indartu dira?	Hasiera bat izan da. Sareak indartu ahal izateko prozesu luzeago bat behar da, azken finean. Lanketa horretan jarraitzeko beharra dago eta, prozesua bukatu ez denez, jarraitzeko aukera ere badago.
• Lortu dugu herritarrek dituzten beharrez jabetzea (norberaren behar eta interes partikularrez harago) eta posizio horretatik erabakiak hartzea?		Oro har, bai
• Gobernantza-eredu berri baterako ikaspenak ateratzeko baliagarria izan da prozesua?		Gauzak egiteko beste modu bat badagoela hezur-mamitzeko balio izan du. Ikaspen-prozesu bat izan da Udal Gobernuarentzat eta partaideentzat.
• Lesakako Udalaren eta Elhuyarren arteko elkarlana. Talde Eragileko kideen arteko harremana eta elkarlana.		Oso ona

Partaideen balorazioak

Entzute-faseko talde-elkarrizketak	1-5
Saioan zehar nire iritzia emateko eta ekarpenak egiteko aukera izan dut.	4,9
Saioan parte hartu duten gainerako pertsonei entzun eta beren ikuspegia ezagutzeko aukera izan dut.	4,9
Lanerako eta iritziak partekatzeko giroa egokia izan da.	4,9
Saioaren ondoren, zenbatekoa da prozesuan jarraitzeko nire motibazioa edo gogoa?	4,6

- *"Atera diren gaiak hagitz interesgarriak izan dira eta giro hurbila sortu da".*
- *"Hagitz interesgarria bertze herritarren ikuspegia ezagutzea eta bereziki adin-tarte ezberdinetako jendearena".*
- *"Pozgarria da udalak aukera ematea eta hainbeste arlotako jendeari eraikin hori erabiltzeko galdetzea".*
- *"Saioan egon den giro goxoa eta gaia bideratzeko teknikarien gaitasuna. Mila esker!" Giro polita eta hurbila. Hagitz ongi egon da".*
- *"Gustura sentitu naiz".*

Gogoeta kolektiboko herritarren 1. saio irekia	1-5
Saioan zehar nire iritzia emateko eta ekarpenak egiteko aukera izan dut.	4,7
Saioan parte hartu duten gainerako pertsonei entzun eta beren ikuspegia ezagutzeko aukera izan dut.	4,7
Lanerako eta iritziak partekatzeko giroa egokia izan da.	4,8
Saioaren ondoren, zenbatekoa da prozesuan jarraitzeko nire motibazioa edo gogoa?	4,5

Hitz batekin baloratu dute 1. saioa eta hauek nabarmendu dituzte: *"Aberasgarria", "interesgarria", "aniztasuna", "elkarlana", "herri-norabidea", "arintasuna", "ezagutza", "herritartasuna", "harremanak", "elkartruke", "eraikitzea".*

Gogoeta kolektiboko herritarren 2. saio irekia	1-5
Saioan zehar nire iritzia emateko eta ekarpenak egiteko aukera izan dut.	4,9
Saioan parte hartu duten gainerako pertsonei entzun eta beren ikuspegia ezagutzeko aukera izan dut.	4,7
Lanerako eta iritziak partekatzeko giroa egokia izan da.	4,8
Gustura geratu naiz emaitzarekin: Alondegiaren etorkizunerako zehaztutako erabilerekin	4,7
Gustura nago prozesuarekin	4,8

"Jende anitzak parte hartu du, ezberdinak", "Inplikazioa", "Partaidetza handia", "Kristoren ideia polita da prozesu hau herriarekin partekatzea. Aberatsa eta sormena bermatzen duena. Oso oso pozik", "Lesaka indartzeko aitzinera pausoak eman dire", "Beti eskertzekoa da administrazioak herri ondasunen erabileraz, etorkizunaz… eragileei eta herritarrei iritzia eskatzea", "Herritar bezala parte hartzeko aukera izatea", "Proposamena ona eta, nahiko konkretuak ideiak", "Atera diren ideia/proposamenak hagitz interesgarriak", "Herri mailan udaletik lan handia egiten ari da. Bakoitzak bere beharrak ditu eta erronka handia suposatu du".

05

Metodologia

LANERAKO MARKO METODOLOGIKOA

Partaidetza-prozesuak garatzen dihardugun 21 urteotan hainbat metodologia ezagutu eta baliatu ditugu eta gaur egun **hainbat metodologiatatik edaten dugu**.

Xedea da **talde-hausnarketa eta talde-harremana bideratzeko prozesuak** zabaltzea eta prozesu horien bidez, harremanak aldatzeaz gainera, **posizionamenduak, egitasmoak eta estrategiak eraikitzea**.

Metodologia hauek **gizarte-sareak berreraikitzeko** aukera ematen digute, alegia, hausnarketaren bidez gizarte-sare horiek eraldatzeko aukera.

Elhuyar metodologiaren urratsak:

- Entzun-behatu
- Gogoeta egin
- Esku hartu
- Ebaluatu, egindakotik ikasi
- Egiten duguna hobetu, aldatu

LANERAKO OINARRIAK

- **Elkarlana:** Elkarlana solaskideekin eta prozesuko partaideekin. Elkarlanak gainera, talde-izaera sendotuko du eta ikuspegi bateratu eta koherentea lortzeko bidea egingo du.

- **Partaidetza:** Partaidetza ez dugu informazioa eman eta iritzia eskatzera mugatuko, guretzat benetako parte-hartzea gauzak ezagutu, elkarrekin aztertu, landu eta denon artean zerbait sortzean gertatzen baita.

- **Komunikazioa:** Komunikazioa arrakastarako gakoa da horrelako egitasmoetan. Komunikazioa beharrezkoa da, bai prozesua abiatu aurretik, bai prozesuak irauten duen bitartean, baita prozesua amaitutakoan ere. Aurrera eta atzera etengabe egingo du informazioak; feed-backa bermatuko dugu, informazio hori osatua eta adostua izatea lortzeraino.

- **Hezkuntza-prozesua:** Emaitzez gain, prozesuak berak protagonismo berezia izango du eta, egitasmoaren xedea bertan parte hartzen dugun guztiok (norbanako, talde eta erakundeek) prozesutik ikastea izango da; elkarrengandik ikasi eta elkarrekin ezagutza sortzea, alegia.

- **Eraikuntza kolektiboko prozesua (ni-tik gu-ra):** ZER egiten dugun bezain garrantzitsua izango da NOLA egiten dugun, eraikuntza kolektiboko prozesuen bidez lortuko baitugu aldaketarako baldintzak sortzea.

- **Norberaren bizipenak eta pentsaerak abiapuntu:** Norberaren bizipenetatik abiatutako ezagutza da gure prozesuen abiapuntua eta, jokoan jartzen ditugu bizipenak eta bizipen horien inguruan egiten ditugun irakurketak. Norberarenetik abiatuta, gainerakoen bizipen eta pentsaerak ezagutu, ulertu eta talde gisa posizionamendu berri bat eraikitzea bultzatzen dugu.

LANERAKO OINARRIAK

- **Koordinazioa eta sare-ikuspegia:** Sinergiak aprobetxatu eta beharrei elkarren artean erantzutea da sare-ikuspegiarekin lan egitea; baliabideak optimizatzea; eguneroko lana eraginkorragoa izatea; norbere ikuspegia beste batzuenekin konpartitzea; ikuspegia zabaltzea eta -politika integral baten parte garela jabetzea.

- **Genero-berdintasuna:** Genero-berdintasuna bermatzea ez da egitasmoaren laneko gune edo egituretan emakumezkoen presentziari erreparatzea bakarrik. Beharrezkoa da egitasmoaren baitan sortzen diren dinamiketan emakumeen eta gizonen arteko botere-harremanak nolakoak diren aztertu eta, beharrezkoa denean, horiek esplizitu egitea. Botere-harreman horiek nolako dinamikak eragiten dituzten jabetzea garrantzitsua da, dinamika berdinzaleagoak eraikitzeko oinarria baita. Bestalde, garrantzitsua izango da, baita ere, proiektuak lantzeko garaian, politika publikoez ari garenez, genero-ikuspegiarekin ari garela bermatzeko neurriak hartzea.

- **Aniztasuna:** Aniztasunaz ari garenean, izateko modu desberdinak biltzeaz ari gara, sentsibilitate politiko desberdinak bateratzeaz, jatorri-aniztasunaz, dibertsitate funtzionalaz... funtsean, gizartean dagoen dibertsitatearen isla izateaz.

06

Komunikazioa

KOMUNIKAZIOA

Prozesuan zehar, komunikazio orokorra

hedabideetan elkarrizketak

Esku-orria etxe guztietara

Erakusketa

2. saio irekirako bideoa

Bukaeran, prozesua eta emaitza sozializatzeko komunikazio orokorra

Partaidetza balioetsi eta eskertzeko bideoa

Emaitza azaltzeko esku-orria

Udalaren webgunean informazio guztia

Partaideekin komunikazioa

Entzute-faserako gonbidapen pertsonalizatuak

Saio irekietako deialdiak eta aktak emailez

07

Emaitza: Alondegiaren etorkizuneko erabilerak

1. LEHENTASUNA:

Herrian **enplegu berriak** sortzeko eta **tokiko garapena** bultzatzeko gune bat, horretarako **trebakuntza** eta bitartekoak eskainiko dituena.

Entzute-fasean identifikatutako beharra

ENPLEGUA - BERRIKUNTZA - PROIEKTU-ITSASARGIAK

- Lesakaren **historia hurbila industriari oso lotua**. Ondorioz:
- **Enplegu gehiena industriak** sortzen zuen. Industriaren gainbeherarekin ataka batean: **Nola sortuko dugu enplegua? Eta zer enplegu-mota sortu nahi dugu?** Lesakan bizi eta lan egiteko aukerak sortzeko beharra. Eta beste garapen-eredu bat bultzatzeko aukera.
- **Proiektu-itsasargiak** falta zaizkigu, aukera emango luketenak Lesakako **gazteak** proiektu horietan inplikatu eta herrian geratzeko.
- Fabrikaren bueltan bizitzeak ekarri du dagoenarekin konformatzea, **irizpide kritikoa, sormena, ekintzailetza eta berrikuntza ez garatzea**. Herritarrok gure beharrak aztertu, **antzeko kezkak eta beharrak dituztenekin elkartu eta konponbideak/alternatibak irudikatu eta gauzatzeko**. Kontsumitzetik sortzera pasa behar dugu, indibidualismotik kolektibotasunera.
- Ikasketak eta enplegua: **Gazte gehienak kanpora joaten dira** ikastera, lanera… Unibertsitate-adinean Lesakatik kanpora joan behar izaten dute eta herrian asteburuetan egoten dira soilik. **Lesakan lan egiteko aukerak sortzeaz gain, Lesakan ikasteko aukerak sortzeko beharra** (Lesakan bultzatu nahiko genukeen garapen-ereduarekin lotuta).

Apirilaren 2an zehaztutako 1. lehentasuna:

Herrian **enplegu berriak** sortzeko eta **tokiko garapena** bultzatzeko gune bat, horretarako **trebakuntza** eta bitartekoak eskainiko dituena.

Herrian **enplegu berriak** sortzeko eta **tokiko garapena** bultzatzeko gune bat, horretarako **trebakuntza** eta bitartekoak eskainiko dituena.

Erabileraren helburu nagusiak

- Herrian **lan egiteko aukera berriak** sortzea, horretarako **bitartekoak** eskainiz (trebakuntza, akonpainamendua, etab.).
- **Ekintzailetza**, **berrikuntza** eta **sormen-ekonomia** bultzatzea.
- **Eraldaketa ekonomikoa** bultzatzea, alegia, **sozialki justua eta ingurumenari dagokionez jasangarria** izango den garapen-eredu bati erantzungo dioten egitasmoen eta enpleguaren sorrera bultzatzea.

Ardatz nagusiak

TOKIKO GARAPEN JASANGARRIA

BERTAKO ENPLEGUA

EKINTZAILETZA KOLABORATIBOA

SORMENA

BERRIKUNTZA

TREBAKUNTZA ETA AKONPAINAMENDUA

Herrian **enplegu berriak** sortzeko eta **tokiko garapena** bultzatzeko gune bat, horretarako **trebakuntza** eta bitartekoak eskainiko dituena.

Egitasmoaren ezaugarri nagusiak

- **Eskualdearen garapen ekonomiko jasangarria irudikatzeko eta sustatzeko epizentroa**. Cederna Garalurrek gidatua. Cederna Garalurren zonaldeko bulegoa bertan kokatuko litzateke.

- **Enpresa-inkubagailua**. Ideia berriak garatzeko espazio bat (urte-kopuru jakin batean erabiltzeko), akonpainamenduarekin (tutoretza, bakarkako trebakuntza -mentoreak gai ezberdinetan-…). Coworking espazio bat, bitarteko batzuekin (inpresora, wifia…).

- Ekintzaile edo negozioa berritzeko laguntza behar dutenentzako **aholkularitza** (bertan kokatuta daudenentzat nahiz ez).

- **Trebakuntza orokorrak eta espezializatuak eskainiko dira**, sustatu nahi diren trebetasunak eta lan-eremuak bultzatzeko. Era berean, sektore jakin bati bideratutako trebakuntzak egingo dira sektorea elkartu eta saretzeko. Trebakuntzak eskaini ondoren, bekaren bat eskaintzeko aukera, negozio-ideia garatzeko. Ondoren, bekadunak urte batzuetan zehar Alondegian bere egitasmoa garatzeko aukera.

- **Coworkingerako espazio bat**. Etxetik edo bakarka lan egiten duten ekintzaileei bitartekoak eskaini eta elkarrizketan jarriko dituena. Arlo jakin batean lanean denbora daraman jendea eta hasi berriak nahastu. Sektore ezberdinetakoak. Espazio kolaboratibo bat. Espazio elkarbanatu bat. Kolaborazio-konpetentziak gara ditzaten ekimen zehatzak (espazioa partekatzea ez da nahikoa): adib. erakusketa/proiektu bat prestatu elkarrekin, inguruko ikastetxeentzako ate irekiak, herritarrentzat tailerrak, aldi baterako dendak data jakinetan… Horretaz gain, besteek nola lan egiten duten ikusi eta elkarrengandik ikasi.

- **Loturak** egingo dituena eskualdeko eta zonaldeko beste gune batzuekin (hemen landutako erakusketa bat beste udalerri bateko eraikin batean…). Eta harremana egingo du **zonaldeko lanbide zentroarekin**, zer lanbideren ikasketak bultzatu pentsatzeko eta, ikasketak egin ondoren, ikasleak enpresa-inkubagailurako proiektuak aurkeztera animatzeko.

Herrian **enplegu berriak** sortzeko eta **tokiko garapena** bultzatzeko gune bat, horretarako **trebakuntza** eta bitartekoak eskainiko dituena.

Erabiltzaileak	• Egitasmoak aurrera egingo balu, gehiago zehaztu beharko litzateke eta, besteak beste, erabiltzaileak hautatzeko irizpideak landu.
Zer solairu	• 2. Solairua eta ganbara (*espazio batzuk herrigintzakoekin parteka litezke)
Funtzionamendua, kudeaketa, bitartekoak, etab.: zertzelada orokorrak	• Cederna Garalurrek kudeatuko luke egitasmoa. Bere egoitza ere bertara ekartzeko prest dago. Gaur egun jada berak eskaintzen dituen ikastaroak, aholkularitza… bertan emango lituzke. Udalak zesioa egingo lioke garapen-agentziari: lokalaren erabilera kudeatzeko eta egitasmoa garatzeko.
Azpiegitura	• Cederna Garalurren bulegoa • Coworking espazioa, internet-konexioa eta inpresora partekatu bat • 2 bilera-gela (pantailarekin) • Ikastaro-gela (pantaila eta arbelarekin) • Proiektu partekatuetarako espazioa: erakusketak, ate irekiak, aldi baterako dendak…

2. LEHENTASUNA:

Herrigintza garatzeko espazio partekatu bat

Entzute-fasean identifikatutako beharra

ELKARTEGINTZA – ELKARLANA – ELKARTEEN ARTEKO SINERGIAK

- **Eragile batzuk osasuntsu** daude, esaterako, kulturgintzan, mugimendu feministan, kirolean… Beste eremu batzuetan, ordea, **jendea antolatzeko zailtasunak** daude, adibidez, gaztetxearen proiektuaren inguruan, adinekoak… Gizarteko joera orokorrak dira nagusi (**gero eta zailtasun gehiago antolatzeko eta elkarrekin gauzak egiteko**).
- Elkartegintza indartsu dagoen eremuetan, halere, **badago zer hobetua**. Adibidez, kulturgintza indartsu dago, baina **bakoitzak bere esparruan dihardu, nahiko zatikatuta, sinergia gutxi**. Osagaiak baditugu, baina salda osatzea falta da. Alde horretatik, interesgarri ikusi da Sorginxulon egiten ari den lana.
- Guneak falta zaizkigu **denon artean herriko arazoak aztertzeko**.
- Kultur Etxea badugu, baina **jendarte-etxerik ez**.
- Musika Eskola Kultur Etxean dagoenetik, hainbat jarduera egiteko zailtasunak. **Harriondoa gainezka** dago.

Apirilaren 2an zehaztutako 2. lehentasuna:

Herrigintza garatzeko **espazio partekatu** bat.

Herrigintza garatzeko espazio partekatu bat

Erabileraren helburu nagusiak

- Udalerriko eragile, elkarte, sektore eta mugimendu **bakoitzari behar duenerako aterpea** eskaintzea. Herritarrak antolatu eta gai ezberdinen inguruan ekimena hartzea erraztuko duen espazio bat.
- Udalerriko eragile, elkarte eta mugimenduen arteko ezagutza bultzatzea eta **elkarrizketan jartzea**. Bakoitzak bereari begiratzeaz gain, gainerakoak zertan ari diren ezagutzeko, beste beharrez jabetzeko eta erronka batzuei elkarrekin heltzeko.
- **Udalerriaren gaur egungo erronken inguruko elkarrizketa eta gogoeta** bultzatzea herritar antolatuekin nahiz elkarte jakin batean antolatu gabe daudenekin. Herri gisa ditugun erronkei begira, elkarrizketarako eta gogoetarako espazio bat.

Ardatz nagusiak

HERRIGINTZA

ELKARLANA / ELKARRIZKETA

ERRONKA KOMUNEI BEGIRA

Herrigintza garatzeko espazio partekatu bat

Egitasmoaren eta espazioaren ezaugarri nagusiak

- Taldeek beren **bulego-lanak** egiteko espazio bat. **Espazio ireki bat**, lanerako mahai eta ordenagailuekin. Coworking espazio baten antzekoa.

- Taldeek bilerak egin ahal izateko **bilera-gelak** (bi edo hiru). Panel edo pareta mugikorrekin, bilera-gela handi bat bitan zatitu ahal izateko, esaterako.

- **Erabilera anitzeko gela handiago bat** (ikastaroak edo mugimendua eskatzen duten dinamikak egiteko, talde handiagoak elkartzeko aukera emango duena).

- Elkar ezagutzeko eta harremanak bultzatzeko **espazio partekatu eta informal bat**: egongela/sukaldea/kafe-txokoa…

- Taldeen **material arina gordetzeko armairuak**: dokumentuak, kartelak, pankartak…

- *Material astunagoa edo bolumen handikoa gordetzeko aparteko leku bat bilatu beharko litzateke, **biltegi** gisa funtzionatuko lukeena. Beti Gaztek eta dantza-taldeak dute behar hau oraingoz. Proposamena: Erdigunean lokal irisgarri bat aurkitu eta Udalak alokatzea. Ondoren, biltegi-beharra duten taldeekin erabili ahal izateko hitzarmena egin.

Herrigintza garatzeko espazio partekatu bat

Erabiltzaileak	• Herriko talde, elkarte, sektore eta mugimenduak. Antolatutako herritarrak. • Antolatu gabeko herritarrak ere bai: gaur egungo erronken inguruko gogoetak, etab. antolatzen direnean.
Zer solairu	• 1. solairua

Funtzionamendua, kudeaketa, bitartekoak, etab.: zertzelada orokorrak	• Zer eta nola egin gaur egungo erronken inguruko eztabaidak eta hausnarketa bultzatzeko? Nola bultzatu taldeen arteko elkarlana? Leku bat jartzea ez da nahikoa horretarako. Hainbat aukera:
	  • Urtean behin/ bi urtean behin Alondegia erabiltzen duten taldeen artean gaur egungo erronka baten edo batzuen inguruko gogoetak/jardunaldiak antolatu.
	  • Binaka ekimenen bat antolatu
	  • Egiten duten lanaren inguruko erakusketak
	  • …
	• Erabiltzaileekin erabilera-arauak lantzea eskatuko du. Eta Udaletik ekimenari segimendua egin eta, behar denean, dinamizatzea, batez ere, taldeak elkarrizketan jartzeko eta etorkizuneko erronken inguruan hausnartu eta egitasmoak lantzeko.

Herrigintza garatzeko espazio partekatu bat

Gaur egungo erabiltzaileak

- **Beti Gazte**: Gainerako taldeak bezalaxe, espazio hau erabiltzeko aukera izango du. Horrez gain, espazio berean bulego eta bilera-gela propioa izango ditu, bere egunerokotasuneko dinamikari erantzun ahal izateko.
- **Xorroxin**: Bi aukera ikusten ditugu: Ttipi Ttaparen ondora eramatea, euskarazko hedabideak elkarren ondoan kokatuz; edo, Alondegian mantentzea, herrigintzan diharduten eragileekin espazioa partekatuz.

Azpiegitura

- Bulego-lanetarako espazio irekia: mahaiak, ordenagailuak, internet-konexioa eta inpresora
- Bilera-gelak (bi edo hiru), pareta mugikorrekin
- Erabilera anitzeko gela
- Beti Gazteren bulegoa eta bilera-gela
- Espazio informal bat: egongela/sukaldea/kafe-txokoa
- Materiala gordetzeko armairuak
- *Biltegia (beste lokal/baxu batean)

Bi guneok, aldi berean, **elkarrizketan** jarri beharko genituzke, biek baitute lotura herri-garapenarekin/herrigintzarekin. Espazio batzuk partekatu egin litzakete, adib., ikastaro-gela, bilera-gelak, erakusketentzako eremua edo sukaldea/kafe-gela. Espazioa partekatzeaz gain, pentsatu beharko litzateke zer egin genezakeen bi eremuok elkarrizketan jartzeko (ekimen zehatzak). Adib. erronken inguruko gogoetak antolatzen direnean, tokiko garapenarekin lotutako eremukoek ere parte har lezakete prestaketa-lanetan eta gogoetan.

ERANSKINAK/BESTELAKO EMAITZAK

I. ERANSKINA: Komunikazio Plana

II. ERANSKINA: Lesakako eragileen eta kolektiboen mapa

III. ERANSKINA: Lesakako eragile eta kolektiboen arazo eta beharrak (talde-elkarrizketetako aktak)

IV. ERANSKINA: Lesakako arazo eta beharren diagnostikoaren sintesia

V. ERANSKINA: Lesakako arazo eta behar nagusiak (murala)

VI. ERANSKINA: Erakusketako edukiak (esperientzia interesgarriak barne)

VII. ERANSKINA: Herritarren saio irekietako memoriak

VIII. ERANSKINA: Komunikazio-euskarriak (gonbidapenak, bi bideo eta bi esku-orri)

IX. ERANSKINA: Partaideen datu-basea

elhuyar

ezagutuz aldatzea

www.elhuyar.eus